

## **iEBANJELIZATZEKO HAMARKUNA**

“Eliza (...) ez dago soilik deitua Ebanjelioa zabaltzeko komunikabideak erabiltzera, baizik eta, gaur egun inoiz baino gehiago, baliabide eraginkor horiek sortzen eta handitzen duten “kultura berrian” salbamenaren mezua txertatzera. Elizak adierazten du oraingoko teknikak eta komunikatzeko teknologiek bere misioaren parte egiten dutela hirugarren milurtekoan” (Joan Paulo II.a, Garapen azkarra, 2005, zk. 2).

- 1 SORRERAN, KRISTO. Jesusek dio:** “Zoazte mundu guztian zehar eta hots egin berriona izaki guztiei” (Mk 16, 15). Agindu honetatik sortzen da Kontinente Digitalean ere ebanjelizatzeke deia.
- 2 INTERNETA, “LEKU” BAT, EZ BALIABIDEA.** Sarea ez da tresna hutsa, bizileku bat baizik. Interneta ebanjelizatzeke “erabili” baino, Internetean ebanjelizatzea da helburu.
- 3 GAKOA, TESTIGANTZA.** “Elizarentzat ebanjelizatzeke lehen baliabidea norberaren benetako kristau bizitzaren testigantza da...” (Evangeliu Nuntianti, zk. 41). Edukiek berez ez dute egiaz ebanjelizatzen Sarean Jainkoak gureganako duen maitasunaren testigantzarik eman gabe.
- 4 GURE INDARRA, GRAZIA.** “Ni gabe ezin duzue ezer egin” (Jn 15, 5). Bakarrik Kristori lotuta, Elizarenganako maitasun eta leialtasunean benetako bizitza kristaua biziz, iMisiolariok fruitu ugari eman eta etsipen eta aktibismoarako tentazioa gainditu ahal izango dugu.
- 5 HERRIA, ELKARTEA GARA.** Norbanakoaren testigantza bezain esanguratsua da elkartearen testigantza. Lekuko elkarte batek, abegitsu eta irekia denak, hurbiltzen direnei Kristorengana jotzen laguntzeke gai denak, iEbanjelizatzeke eragin eta indar askoz handiago du norberaren proiektu isolatuek baino.
- 6 DENETAN, KARITATEA.** Harrokeriak, zatiketak eta karitarik gabeko kristauen arteko kritikek sortzen duten eskandaluzko ikuskizunek eszeptizismoa eta, hainbatetan, ateismoa ere sortarazten dute. Eliza eraikitzea, komunioa eskatzea eta lantzea, premiazkoa dugu Kristoren apostoluak izan nahi badugu eta ez Sarean ere zatitzen gaituen Gaiztoaren morroiak.
- 7 ZABALIK, GUZTIENTZAT.** iEbanjelizatzeke apaltasunez elkarrizketara zabaltzea eskatzen du, fedea onez hartzen dutenei ez ezik ezagutzen ez dutenei eta urrutiratuei ere.
- 8 FRUITUA EMATEA DUGU HELBURU, EZ ARRAKASTA IZATEA.** Soilik jarraitzaile, lagun, bisitari,... gehiago nahi izatea idolatria era bat da. Kontuz ibili behar dugu hedabideak berak harrapatu ez gaitzan. iMisiolariok ez dugu nahi arrakasta pertsonalik izatea Erreinurako emaitzak lortzea baino.
- 9 BIRTUALETIK AURREZ AURRERA.** iEbanjelizazioak abiapuntua mundu digitalean du, baina muga hori gainditzeko saiatzen da aurrez aurreko topaketa ahalbideratzeko. iEbanjelizazioa egiaz-tatu, garbitu eta indartu egiten da aurrez aurreko topaketan.
- 10 BETI IKASLE, BETI IKASTEN.** iMisiolariok gaurko gizakion bihotza ukitu dezaketen eta Kristoren berria emateko hizkuntza berriak bilatzen ari gara etengabe. Horretarako iMisiolariok gure fedearrekin dugun erantzukizunaz jabetu eta komunikazio eta teknologia berrietan etengabeko trebakuntza behar dugu.